

## HIZKUNTZARIK BALIOZKOENA

### *J. Egigurentarra*

Kristaueraz mintzatzeko eskariak ahitu zirenez gero balio neurriak beste moda bat hartu zuten. Baina, horretaz ere, besteetan ohi bezala, bakotzak bere opilari putz.

Besteak diskriminatzaile direla uste duen gaztelarrarentzat, izatez berea da Espainiako hizkuntza, eta espainola munduan ederrena eta zabalduena. Inglesak ordea, ez du uste bera; ez bai du berena gutiagotzat eta, gainera, kulturaz hornituen dau den herrialdeetan tinko hedatua dago. Horiek horrela direlarik, errusoak ez nahi atzean gelditzerik eta txinoen ustez bere-na izanen da etorkizunekoa.

Hasieran hitza omen zen, Testamentu berrian agertzen denez. Horregatik ote du apezak azken hitza bere?

Hitza, ez da izan eta izanen erabili gabea. Bitartean, jendakiak hemen arituko dira bakotzak bere opilari puzka.

Alemanak apaltasunik gabe aitortu zuen:

—Zientzia gaietan ez da gurea bezalakorik.

—Bai —ihardetsi zion juduak—, zuen zientzia horregatik ukan genituen martiriak eta horietan oinarriturik berpiztu genuen hebraiera.

—A! Bai. Guzi hoiiek horrela izanen dira, baina inork ezin duzute ukatu gurea dela munduko aristokratek eta diploma-tikoek zinez onartua —zion, frantsesak.

Entzutekoa zen italiarraren agerpena:

—Gurea aingeruekin solasean mintzatzeko egina da.

Han entzule zen mutuak, eskuak bizkor eraginezko adieraz-penez galdetu zien: Kristauera mintzatzearen patentea galduz gero ia hizkuntzetarik zein zen Jainkoarentzat egina. Eta, ain-geru hizkuntzadun italiarrak, zalantzarik gabe:

—Latina.

Denen isiltasunaren erdian, juduaren ezpainetan irrifarra bihurria nabari zen.

Giro haretan ez zen ez bakotxa beretzat eta Jainkoa oro-rentzat.

Han inor ez zen bereaz gutietsirik. Izan ere, bakotxa berea-reakin harro izatea baino gauza hoberik ba ote?

Euskalduna ere berean kokatua zen:

—Bai; neretzat euskara da baliozkoena.

Guziak, harriturik:

—Euskara! Zertarako?

—Euskaldunekin mintzatzeko.